# Unibertsoa zabaltzeko berrargitalpena

**Bildumako lehen hiru liburukinak estreinakoz «batera eta euskaraz» irakurtzeko aukera du orain irakurleak Ereinen eskutik**

JON AGIRRE




Paul Urkijo, filmaren zuzendaria, Uxue Razquin editorea eta Joxean Muñoz, komikiaren gidoilaria. FLOBO ALTUNA

DONOSTIA. Erein argitaletxeak 'Irati' komikia berrargitaratu du, duela gutxi izen bereko filmaren eskutik gaina jo eta errekor guztiak hausten jarraitzen duen «unibertsoa zabaltzen jarraitzeko». Izan ere, Uxue Razquin editoreak nabarmendu bezala, «Eneko eta Irati pantailan ezagutu» ditugu Paul Urkijoren lanarekin, baina Juan Luis Landak eta Joxean Muñozek sortutako mundu mitologiko eta historikoa «paperean dugu duela 30 urte».

Hori bai, atzo aurkeztutako argitalpena arte lehen hiru liburukinak –'Autzaren esnatzea', 'Boldroen domina' eta 'Iratiren zigorra'– ezin ziren euskaraz irakurri, lehena aspaldian kaleratu baitzen baitzen atalka Ipurbeltz komiki-aldizkarian, baina jada ez dago eskura, eta gainerako biak soilik gaztelaniaz izan ziren plazaratuak. «Filmak horretarako balio izan badu, ongi. Pozik», bota zuen umorez Urkijok.

Edizio berriak bi ale ekarri ditu. Batetik, aipatutako euskarazkoan, hiru liburukinak aurkituko ditu irakurleak. Horretaz gain, Ikastolen Elkarteak Xabiroi bilduman plazaratu zuen laugarrena, 'Saiak', oraindik eskura dagoenez, ez txertatzea erabaki du Ereinek. Bestetik, gaztelaniazko alean lau liburukinak topatuko ditu irakurleak. Eta bietan ala bietan gehitu dira Juan Luis Landak eta Joxean Muñozek sinatutako hitzaurre bana eta baita azal posibleen irudiak, kolorea eman aurreko plantxa edo pertsonaien marrazkien zirriborroak.

Dena «'Irati' unibertsoak» bere hedapena jarri dezan, gidoilariak irribarre artean esan bezala. Izan ere, aurkezpenean argi utzi zuten bezala, «komikietan islatutako guztia ez zen jaso filmean eta filmean erakutsitako guztia ez da aurkituko aurrez argitaratu ziren lau liburukietan». Eta ezberdintasun hori oso aberasgarritza jo zuten, euskal kultur lehen aldiz eman baita. «Horrek ikuslearengan jakinmina sortuko du eta guk ere gogoa dugu jakiteko zein izango den zaleen erantzuna».

**'IRATI'**
JUAN LUIS LANDA ETA JOXEAN MUÑOZ
Bidluma: Komikiak.
Argitaletxea: Erein.
Orri kopurua: 160. Prezioa: 33 euro.

## 'Irati filma, «detonante»

Landa zein Muñoz oso eskertuak azaldu dira aurkezpenean, bai Urkijori 'Irati' filma egin izanagatik zein Erein argitaletxeari «duela urte askotatik agortuta» dagoen komikia berrargitaratzeagatik. «Eta euskaraz gainera!», azpimarratu du Muñozek. Bientzat pelikularen zuzendaria izan da «guztiaren detonantea». «Uste genuen jada lehorra zegoela eta bat-batean bizirik jarraitzen duela ikusi dugu, jendeak hartu eta asko gozatzen duela», azaldu du Landak bideo bitartez, ezin izan baitu aurkezpenera bertaratu. 'Irati' unibertsoa sortu zuen paisaietatik mintzatu da. «Hemen sortu zen, mendi hauetan ibilian nenbilela. Hemen topatu nuen inspirazioa eta hemen sortu zen lehen gidoia». 1995ean kaleratu zen 'Autzaren esnatzea' albumaren istorioa VIII. mendean kokatzen da eta ekialdetik etorritako eta elkarren guztiz kontrako bi erlijioren, kristaua eta musulmana, lehia eta horrek eragin zuen baskoien sinesmen primitiboen agonia jasotzen du.

Ostean, bi sortzaileek azaldu bezala, Landaren bigarren semea jaio zen eta bigarren albumak zekarren lan bolumena kontuan izanda Muñoz 'fitxatu zuen'. «Gidoia harengan delegatu nuen, aurrez ezagutzen ginen, eta harekin bestelako dinamismo bat lortu zuen, aberasten joan zen». Eta hala heldu ziren beste hiru albumak, hau da, 'Boldroen domina' (1997), 'Iratiren zigorra' (2003) eta 'Saiak' (2013).

## «Munduaren bilakaera»

Muñozek hitzartzean nabarmendu bezala bilduma osatzen duten aleak «nahiko poliki» egin genituen eta, beraz, hauek patxadaz irakurriz gero «marrazkiaren eta Juan Luisen munduaren bilakaera» ikus daiteke. Eta bilakaera guztiak, filma bitarte, euren aurreikuspen guztiak gailendu ditu. «Ilusio handiko momentua da, oso pozgarria da pentsatzea Iratik bizirik jarraitzen duela eta gainera badela hazi bat besteek horren inguruan beren gauzak sor ditzaten. Ia sortzeko gogoa eta irakurtzeko gogoa sortzen duen», adierazi du Muñozek.

# El Princesa de Asturias distingue a la historiadora Hélène Carrère d'Encausse

AFP

OVIEDO. La historiadora Hélène Carrère d'Encausse, gran especialista de Rusia y secretaria permanente de la Academia francesa, fue galardonada ayer con el Premio Princesa de Asturias de Ciencias Sociales 2023, que la consideró «una de las personalidades más brillantes» del pensamiento europeo contemporáneo. Su hijo, el escritor Emmanuel Carrère, ya recibió el Premio Princesa de Asturias, pero en la categoría de Letras, en la edición de 2021.


Carrère d'Encausse.

«La obra de Hélène Carrère d'Encausse –que incluye monografías de investigación, biografías y grandes ensayos de interpretación histórica– constituye probablemente la aportación más sustantiva que se haya hecho en las últimas décadas al conocimiento de la Unión Soviética y Rusia», resaltó el acta del jurado de este premio que convoca la Fundación Princesa de Asturias.

Hélène Zourabichvili, que pasó a ser Carrère d'Encausse después de casarse, nació en París el 6 de julio de 1929, de padre georgiano y madre de origen ruso-alemán. Más tarde se licenció en Ciencias Políticas y se doctoró en Historia y en Letras y Humanidades. Dio clases en numerosas universidades y no tardó en convertirse en una referencia internacional en estudios eslavos, especialmente de la URSS.

Su libro 'L'Empire éclaté (1978)' fue uno de los títulos más destacados de su carrera, donde pronosticaba la disolución de la URSS con una década de antelación.

## EN BREVE

INVESTIGACIÓN

### Estudio sobre el influjo de la música electrónica

El Festival Dantz en colaboración con el Departamento de Psicología Social de la UPV/EHU realizará un estudio de investigación pionero para analizar los efectos de la música electrónica en las personas. El trabajo, liderado por el doctor Xavi Mínguez Alcaide, analizará el influjo de este tipo de música tanto en el plano social como individual. Dantz invita a todas las personas interesadas a participar a través de la web del festival en el proyecto, cuyos resultados se harán públicos en un acto en el que habrá una sesión de música electrónica . DV

TOLOSA

### Aniversario en el Topic de la Academia de Roma

El Topic de Tolosa acogerá los próximos días 19 y 20 un pequeño programa de actos, con los que se sumará a la celebración del 150 aniversario de la Academia de España en Roma. El 19 María Royo y Ana Zamora protagonizarán un encuentro de artistas y el 20 se representará la obra 'Retablillo de Don Cristóbal'. DV

KOLDO MITXELENA

### Charla de Mariasun Landa sobre la vejez

La escritora Mariasun Landa ofrecerá hoy la última charla del ciclo 'Crisis de la contemporaneidad' de Koldo Mitxelena Kulturunea, bajo el título 'Zahartzaroa femenino singularrean, baina pluralean jokatua? / La vejez en femenino singular ¿pero conjugada en plural?' El acto comenzará a las 19.00 horas. DV

MÚSICA

### Actuación de Ojete Calor el sábado en el Kursaal

Ojete Calor, dúo formado por Carlos Areces y Aníbal Gómez, llevará este sábado al Auditorio Kursaal de San Sebastián su «hilarante» espectáculo, en el marco de una extensa gira y precedido por los éxitos obtenidos en el Wizink Center de Madrid y recientemente en el Palau Sant Jordi de Barcelona. DV